

PILOTUA

Behin Loiu-Santiago de Cubarako bidai batean, ume bat bakarrik sartu zen hegazkinean eta trankil asko bere lekua topatu eta gero eseri zen.

Koaderno bat ireki eta margotzen hasi zen.

Lasai zegoen ez zuen urduritasun adierazpenik egin ez abiatzean ezta ere hegazkinak altura handia hartzean.

Aldameneko bidaiaria guztiz harriturik zegoen.

Hegalaldia ez zen ona izan, ekaitza zeharkatu zuten eta astinketa asko jaso zuten.

Une batean astinketa bereziki bortitza izan zen eta jendeak izuturik urduritasuna agertu egin zuen.

Bitartean umea bere margo jardueran buru belarri jarraitzen zuen eta bakea ez zuen ezta unetxo bakar batean ere galdu.

Aldameneko bidaiariak nerbio guztiak atezuan zeuzkala galdetu zion ozenki:

-Ez al duzu beldurrik?

Umeak begiratu eta -Ez andrea ez daukat beldurrik.-erantzun zion.

Berriro margotzen hasi baino lehen zera gehitu zuen apaltasunez:

-Nire aita hegazkinaren pilotua da.

Ipuin hau gustatu zait pertsona bat maitatzen duzunean harengandik konfidantza duzulako.

Ametz Fernández